

# Berdintasuna.. Zertarako?

**Proiektuaren txostena  
eta  
lortutako proposamenak**



## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. ETA, ZUK... ZERTARAKO? .....</b>	<b>4</b>
<b>EKINTZAREN ANTOLAKETA .....</b>	<b>4</b>
<b>LORTUTAKO PROPOSAMENAK.....</b>	<b>5</b>
<b>3. EMAKUMEEN HIRIA.....</b>	<b>7</b>
<b>EKINTZAREN ANTOLAKETA .....</b>	<b>7</b>
<b>LORTUTAKO PROPOSAMENAK.....</b>	<b>9</b>
<b>4. BERDINTASUNA... ZERTARAKO? ..</b>	<b>10</b>
<b>EKINTZAREN ANTOLAKETA .....</b>	<b>10</b>
<b>LORTUTAKO PROPOSAMENAK.....</b>	<b>11</b>
<b>5. 10 GAZTE DESIRA .....</b>	<b>13</b>

# Berdintasuna...

## Zertarako?

### Proiektuaren txostena eta lortutako proposamenak

## 1. SARRERA

---

2016ko azaroan, Berdintasun lan-arloaren lehen zikloari itxiera eman nahian EGK-k “Berdintasuna... Zertarako?” proiektua martxan jartzen du. Honen helburua izanik Berdintasun arloko gazte kezkek eta erronkak, hala nola, gai konkretuei buruzko proposamenak jasotzea.

Honetarako, Euskadiko hiriburu bakoitzean ekintza konkretu bat burutu zen:

- **Eta, zuk... Zertarako?:** azaroaren 9an Gasteizen, UPV/EHUren campusean zehar ikasketa eta adin desberdinetako gazteei Berdintasunak dituen erronkaz galdetu zitzairen. Kezkak, erronkak eta proposamenak, aldi berean, twitter bitartez partekatu ziren #ZukZertarako traolarekin.
- **Emakumeen Hiria:** azaroaren 21ean Donostian hiriaren esparru publikoak emakumeei uzten dien memoria historikoaren eremuaz eta Indarkeria Matxistaz gogoeta egiteko ekintza burutu zen.
- **“Berdintasuna... Zertarako?” Topaketa:** azaroaren 30ean Bilbon burutu zen belaunaldien arteko topaketa. Honetan Indarkeria Matxista eta denboraren banaketa desberdina genero ikuspegitik landu ziren gazte erronka gisa.

Jarraian ekintzen xehetasunak eta hauetatik ateratako ondorioak aurkezten dira, amaieran gazteok Berdintasun arloan ditugun 10 desiratan laburbilduta daudelarik.

Eta, #ZukZertarako... ?



## 2. ETA, ZUK... ZERTARAKO?

Lehen ekintza honen helburua zen gazteon Berdintasunarekiko premiak eta proposamenak jasotzea. Gazteon proposamenak gaurkotuak izatea oinarri bat da EGKren eguneroko lanean eta hauen berri izateko ezinbestekoa da etengabeko elkarrizketa mantentzea.

Baina, honetaz gain, bazeuden ere beste bi helburu:

- Gazteak Berdintasunari buruzko eztabaidara animatzea eta honen eraikuntzan parte aktibo eta garrantzitsu sentiaraztea.
- Proiektuaren barruan zeuden beste bi ekintzen berri ematea.

Helburu hauetarako, kasu honetan, gazteak eztabaidara erakartzea baino, gazteengana eztabaidatzera gerturatzea izan zen apustua galdera bakar bat izanik abiapuntu: “Berdintasuna, zuk... Zertarako?”.

### EKINTZAREN ANTOLAKETA

Data: azaroaren 9a

Lekua: Gasteizko UPV/EHU campusean zehar

Iraupena: egun osoan zehar

Kasu honetan gazteengana gerturatzean zetzan ekintza, unibertsitateko campusean zehar aurkitzen ziren talde zein banakoengana gerturatuz. Lehenik eta behin, gazteei EGK eta ekintza bera aurkezten zitzairen, hala nola, hurrengo ekintzetan parte-hartzeko gonbita luzatzen zitzairen ere.

Behin aurkezpena egina, ondokoa planteatzen zitzairen:

*“Euskadiko Berdintasun Legeak hamar urte bete berri ditu 2015ean. Honi esker hainbat politika eta neurri ezarri dira eta Berdintasun errearen aldeko lana martxan jarri da.*

*Non esango zenuke oraindik fokuz berezia ezartzea beharrezkoa dela? Berdintasun behar konkretu batzuk oso argiak badaude, baina gazteriak zeintzuk ditu bereziki? Zuk zertarako sentitzen duzu baduzula honen beharra?"*

Honen ostean, minutu batzuk uzten zitzairen beraien ideia denak islatzeko hainbat kartoi meheetan. Bukatzean, taldean partekatzen ziren ideiak eta hauek guztiak jasotzen ziren, batzuetan ere talde mailako eztabaida sortuz.

## LORTUTAKO PROPOSAMENAK

### Proposamen orokorrak

- ♀ Emakume eta gizon gazteen arteko desberdintasun era konkretuei erreparatu eta kontuan izatea bereizketa gehiago sorrarazten dituzten bestelako faktoreen eragina (jatorria, kultura, orientazioa...).
- ♀ Aditzera ematea gazterian bizi diren bereizketa konkretuak eta hauen arrazoen aurka ekin.
- ♀ Oraindik ere esparru askotan ematen den emakume eta gizon gazteen arteko segregazioa ekidin eta espazio fisikoei dagokionez eztabaida ireki. Adibidez: noiz da beharrezkoa komun bereziak izatea?

### Hezkuntzari dagokionez

- ♀ Dauden hezkidetza programak, hobetu, indartu eta ikastetxe guztietara hel daitezten lan egin.
- ♀ Ikastetxeek Berdintasun Planak izateko erraztasunak ezarri.
- ♀ Irakasgai guztietan Berdintasun ikuspegia txertatu: erabiltzen diren adibideetan, testuliburuaren aukeraketan, historia irakasgaietan...
  - Goi mailako ikasketetako curriculumean Berdintasunari buruzko irakasgaia eskaintzea dagokionean.
- ♀ Irakasleriarentzat zuzendutako hezkidetzari buruzko formakuntza programak eta gidak bultzatu eta ezagutzera eman.

### Lan munduari dagokionez

- ♀ Emakume eta gizon gazteen arteko egoera konkretuaren ondoriozko neurriak diseinatu.
- ♀ Enpresei zuzendutako kontrataziorako laguntzek beti efektu positibo bat dutela eta kalitatezko lanpostuak sortzen dituztela ziurtatu, emakume gazteen prekarizazioa ekidinez.
- ♀ Kuotak sortu oraindik ere laneratzean desorekak sortzen direnean emakume-gizon gazte proportzioan.
- ♀ Lan Ikuskaritzan Berdintasun ikuspegia zeharkako bilakatzea: bertaratzen diren eta sexismoan oinarria duten kexa eta salaketek behar duten arreta, seriotasun eta zigorrez erantzutea.

- ♀ Gazte ikuspegiko kontziliazioa bultzatu eta erantzukidetasuna sustatzeko kanpainak burutu.
- ♀ Amatasun eta aitatasun baimenak berdintzea.

### Gazteriarri eskaini beharrekoaz dagokionez

- ♀ Barneratutako rol eta estereotipoak desmuntatzeko espazioak sortu eta bultzatu. Emakume eta gizon gazteek feminitate eta maskulinitate tradizionalak alde batera uzteko.
- ♀ Historian zehar garrantzitsuak izan diren emakume erreferenteak berreskuratu eta ezagutarazi. Bereziki tradizionalki maskulinoak izan diren esparruetan, adibidez, kirol munduan.

### LGTBI+ kolektiboari dagokionez

- ♀ Kolektibo hau Berdintasunaren agendan kokatzen dugu bi arrazoiengatik:
  - Alde batetik, emakume eta gizonezko gazteen genero askatasuna murrizteko irain eran erabiliak direlako kolektiboko izen desberdinak.
  - Bestetik, LGTBI+ kolektiboak jasandako diskriminazioa emakume eta gizon izateko eredu dikotomikoekin bat ez egitearen ondorio zuzentzat jotzen dugulako.
- ♀ Horregatik proposatzen da:
  - Kolektiboak oraindik ere bizi dituen diskriminazio desberdinei arreta ezartzea eta hauen aurka lan egiteko tresnak eraikitzen joatea.

**Gazteek ere buruan izan dute Indarkeria Matxistaren arazoa**, baina guztiek azpimarratu nahi izan dute hau desagerrarazteko ere **laguntzazkoa dela beste arloetan ekitea**. Hau da, emakume gazteen askatasuna eta eskubide Berdintasuna bermatuz eta gazte guztiekin Berdintasunaren garrantzia landuz, indarkeria egoerak emateko eta hauetan jarraitzeko probabilitatea murriztuko litzatekeela.

## Emakumeen Hiria



### 3. EMAKUMEEN HIRIA

Agian galdera ikurrarekin idatzi beharreko izenburua litzateke hau, horixe baitzen ekintzaren azken helburua, planteatzea ea gure hiriak emakumeen hiriak diren ala ez. Balorazio honetarako, hirien esparru publikoaren diseinuak beste bi gertakarien gainean izan dezakeen efektuaz eztabaidatu da, hauek izanik:

1. Memoria historiko kolektiboaren eraikuntza.
2. Indarkeria Matxista gertatzea.

Beraz, alde batetik, eztabaida honetan, hirien esparru publikoa memoria historiko kolektiboa eraikitzen laguntzen duen tresna gisa ulertu da eta honek Berdintasun ikuspegia zein mailaraino txertatua duen ikusi da.

Beste alde batetik, Indarkeria Matxista esparru publikoan ematen denean testuinguruaren diseinuak izan zezakeen efektua baloratu da.

Horrela, hiriaren esparru publikoak duen Berdintasunaren alde egiteko aukeraz hitz egin da, hiria gizarteratzeko eta, tamalez, indarkeria kasuak gertatzen direneko espazioa baita.

#### EKINTZAREN ANTOLAKETA

**Data:** azaroaren 21a

**Lekua:** Donostiako EGK-ko egoitza eta Alde zaharrea barrena

**Iraupena:** bi ordu eta erdi

Guzti hau lortzeko bi ataleko ekintza bat diseinatu da. Lehenengo atalean, Donostiako hiriaren kale izenen analisia oinarri, hiriaren Alde Zaharretik burutzeko Tour bat diseinatu da. Tour honen helburua da jada kaleen izenek beraien Berdintasun ikuspegiak ikusarazten digutena mahai gaineratu eta eztabaida piztu.

Posible litzateke, denbora edo saio bat baino gehiagotan iraganaren gaia landu ahal izanez gero kaleez gain memoria historiakoren isla diren beste hainbat esparru aztertzea: oroitzapenezko monumentuak, eraikin esanguratsuak...

Bigarrenik, Nerea Martin Fernandez UPV/EHUko ikerlariaren laguntzarekin, espazio publikoak Indarkeria Matxistan izan dezakeen efektuaz hitz egin da. Ikerlariak aurten aurkeztu du bere doktorego tesia eta honetan, beste gauza batzuen artean, eraso sexualak esparru publikoan ematen zirenean espazioaren ezaugarriak izan ditu aztergai. Ikusita zeintzuk diren ikerlariak detektatutako ezaugarri kaltegarriak, gure hiriengan pentsatuz egin daitezkeen proposamenei buruzko eztabaida ireki da.

Nerea Martin Fernandez UPV/EHUko Kriminologia Aplikatuari buruzko ikerlari taldeko partaidea da.

Hiri seguru, barne-hartzaile eta jasangarria da bere Ikerketa ildo eta 2016an aurkeztu du ondoko izena duen tesia: “Ingurune-ikuspegitik eraso sexuala delituaren analisia: patroiz espazio-tenporalak, arau-hauslearen mugikortasun jokoerak eta hiri-espazio publikoan dauden krimen lekuen ezaugarriak”.

Ekintzaren iraupena:

Ekintzaren atala	Iraupena
Harrera eta ongi etorria:	10'
Tour-a:	60'
Tour-aren bukaerako gogoeta:	15'
Tesiaren ondorioen aurkezpena:	20'
Aurkezpen osteko eztabaida:	45'
Iraupena guztira:	2 ordu eta 30'



## LORTUTAKO PROPOSAMENAK

Jarraian ekintza honen bitartez lortutako proposamenak gaiaren arabera bananduta aurkeztuko dira:

### Memoria historikoari buruzko proposamenak:

- ♀ Historian zehar **emakumeek izan duten garrantzia onartu hauen izenak kaleak izendatzeko gizonetzkoen izenak beste erabiliz** (egun, Donostiako hiriren kasuan, pertsona izena duten kaleen %17a dagokio soilik emakumeei).
- ♀ **Tradizionalki emakumeek eginiko rolak zein ogibideak balorean jarri:** kale izenak emanez, oroitzapenezko eraikinak eginez...
- ♀ **Hiriarentzat esanguratsuak diren emakumeen historia** ezagutzera eman **ekimen berezien bitartez** eta hauek oroitzeko dauden hiriko guneak ere ezagutzera emanez.
- ♀ **Erreferente alternatiboak** izan daitezkeen pertsona guztiak ezagutarazi: garaiko bereizketak gainditu zituzten emakumeak, tradizionalki beste generoarenak diren esparruetan ospetsuak egin diren emakume edo gizonak...
- ♀ Honen antzeko **analisiak baimenduko dituzten tresnak eskuragarri egotea:** ekintza hau posible izan da Donostiako Udalaren webgunean kaleen izen zerrenda era irekian eskegita dagoelako, baina udal guztiek ez dute horrelakorik.

### Indarkeria Matxistari buruzko proposamenak:

- ♀ **Prebentzioa ahalbidetuko duten ikerketa eta esku-hartzeak bultzatu:** hainbat ikuspegitik burutu daitezkeen ikerketak eta gazteen iritzia sakonki ezagutzen laguntzen duten ekimenak aurrera eramatea.
- ♀ **Ebidentzian oinarritutako praktika egokien gidak:** ematen diren Indarkeria Matxista kasuak abiapuntu, esparru publikoaren aldaketa, zaintza eta hobekuntza orokorrerako gidak egin; bai ikuspegi teknikoaz, bai gazteriaren partaidetzaz.
- ♀ **Jada existitzen diren espazioen aldaketa:** gomendio konkretuak pixkanaka txertatuz joatea (gune berdeak zaindu, argiztapen egokia ziurtatu...). Hala nola, hirietako puntu beltzen identifikazioa eta hauen eraldaketa osorako prozesua ireki.
- ♀ **Oraindik eraiki ez diren espazio publikoen diseinua hobetzeko neurriak:** espazioen diseinurako hainbat ezagutza arlotako aholkularitzak burutzea; espazioen diseinu, mantentze eta hobekuntza neurrien diseinuan gazteen partaidetza bultzatzea...

## Berdintasuna... Zertarako? Topaketa



# 4. BERDINTASUNA... ZERTARAKO?

Proiektuaren azken ekintza honen helburua izan da urte honetan zehar Berdintasun lan-arloak eragile desberdinek kezkarri gisa identifikatutako bi gairi buruzko belaunaldien arteko eztabaida bultzatzea:

- ♀ Indarkeria Matxista
- ♀ Denboraren banaketa genero ikuspegitik

Gazteria izanik eraldaketarako belaunaldia batzuetan arrarotzat jo izan da honetan Indarkeria Matxista kasu gehiago salatzea gainerako biztanlerian baino. Era berean, pentsatuz jada Berdintasunerako aldaketa hasia zegoela eta kontziliazio neurriek denbora daramatela gizarteratuta, harritzekoa da gazteen artean dagoen etxeko lanetarako emandako batezbesteko denbora desberdintasuna generoaren arabera, 16 minutukoa dena. Oraindik ere gazteengan badirauten desberdintasun egoera hauek gogoeta behar dute eta ez soilik gazteena beraiena, baita egoerak beste testuinguru eta garaietan bizi izan dituztenen belaunaldiena.

### EKINTZAREN ANTOLAKETA

**Data:** azaroaren 30a

**Lekua:** Bilboko EGK-ko egoitza

**Iraupena:** bi ordu eta erdi

Azken ekintza honek bestelako jardunaldi, hitzaldi eta eztabaida guneek izan dezaketen antolaketa pausu berdinak izan ditu.

Hasteko, Indarkeria Matxistari buruz egin den definizioa eta egoeraren irakurketa luzatu zen. Honetarako, Indarkeria Matxistaren protokoloaren onarpenaren urte erdiaren eta azaroaren 25aren arrazoiarekin atera zen [txostena](#)ren ondorioak aurkeztu ziren, bukatzeko ondoko galderari buruzko eztabaida irekitzeko:

- *Zein berrikuspen egin daiteke Indarkeria Matxistaren kontzeptu honi?*
- *Zergatik ematen dira salaketa gehiago gazteen artean; egoera gehiago ematen dela baieztatu dezakegu edo beste faktore batzuk daude?*
- *Zeintzuk identifikatzen ditugu indarkeria gisa?*
- *Zer gertatzen da indarkeria gisa identifikatzen ez ditugun horiekin?*

Honen ostean, denboraren banaketa genero ikuspegi batetik jorrazteko lekua eman zen. Kasu honetan [Ibilbide Moreak](#) txostenean azaltzen zen etxeko lanei emandako batezbesteko denboraren desberdintasuna hartuta abiapuntu eta ondoko galderak luzatuz:

- *Zein erantzun ematen zaio gazteen arteko desberdintasun honi?*
- *Kontziliazioaz hitz egiten denean, islatuta sentitzen al gara gazteok?*
- *Familia eta lan bizitzaz gain, bizitza pertsonalaz gogoeta egitea beharrezkoa al da?*
- *Erantzunkidetasuna sustatze aldera, zein neurri har daitezke?*

## LORTUTAKO PROPOSAMENAK

Aurreko ekintzaren proposamenekin bezala, gaika banatuko ditugu ekintza honen ondoriozko proposamenak:

### Indarkeria Matxistari buruzko proposamenak

- ♀ **Gazterian ematen den Indarkeria Matxistaren salaketa proportzioaren arrazoen ikerketa bultzatu:** zifraren atzean kontrako bi faktore egon baitaitezke. Izan ere, posible da indarkeriari buruz kontzientzia maila altuagoagatik gehiago salatzea, baina baita gertakariak gehiago emateagatik.
- ♀ **Hezkuntza eta kontzientziarioa** Berdintasunean bizi den gazteria lortzeko oinarritzat hartu eta egun dauden proiektuak indartu.
- ♀ Salagarriak ez diren (delituak ez direlako) baina **matxistak** badiren **jarrera nahiz portaerei gizarte eta gazteri mailan erantzun ahal izateko baliabideak eta estrategiak** ezagutzera ematea emakume gazteen artean.
- ♀ Edozein **Indarkeria Matxista** egoerari aurre egiten dioten emakume gazteei eskaintzen zaien **arreta zerbitzuetan** harrera hobetze aldera lanean jarraitu.
- ♀ **Genero Indarkeria biktimaren figurari buruzko eztabaida burutzea:** 1/2004 Legea murriztegia baita soilik bikotekide edo bikotekide ohia baloratzen duelako erasotzaile gisa.

### Emakume eta gizon gazteen arteko denbora banaketari buruzko proposamenak

- ♀ **Gazteei egokitzen den kontziliazio eredu diseinatzea:** familia karga konkretuak izan ohi dira gazteriarenak. Gainera, kontziliazio beharrerako beste arrazoi batzuk

ere egon ohi dira (ikastea, adibidez), egun ez direnak kontziliazio arloaren barruan kontuan hartzen.

- ♀ **Norberaren denbora propioa balorean ezarri kontziliaziarako eskubideen barruan:** gazteok kontziliazio behartzat jotzen dugu ere garapen pertsonalerako beharrezkoa den denbora.
- ♀ **Lanaldi partzialaren feminizazioa aztergai jartzea:** lanaldi partzialean dauden emakume gazteek gizon gazteak bikoizten dituzte. Gainera, lehenek “etxeko lanen karga” aurkezten dute hau aukeratzeko arrazoi nagusi gisa. Garrantzitsua da arrazoiak ikertzea epe ertain eta luzera eragiten duen emakume gazteen dependentzia ekonomikoa geldiarazteko.
- ♀ **Amatasun eta aitatasun baimen berdin eta besterenezina ezartzea:** emakume gazteen amatasunak, gizonezko gazteen aitatasunaren hirukoitza dena, emakume gazteen kontratazioarengan eragina izan dezake. Hau ekiditeko baimenen berdintzea da proposamena.
- ♀ **Erantzunkidetasunari buruzko gazte optikako kanpainak behar dira:** denboraren banaketa desberdina generoaren arabera gazterian hasten da eta honetan ematen diren egoerei ere arreta eskaini behar zaie.



## 5. 10 GAZTE DESIRA

Jarraian proposamen guztiak laburbildu eta 2017rako ditugun 10 desiratan bilakatu ditugu:

- ♀ **Oraindik ere ematen den identitatearen araberako segregazioa ekiditea.**
- ♀ **Emakume gazteen parte-hartzea sustatzea bizitza kultural zein politikoan.**
- ♀ **Hezkuntza formalean Berdintasun Planak egitea sustatu eta hezkidetzari behar besteko presentzia ematea.**
- ♀ **Memoria historikoa emakumeen historiarekin osatu eta erreferente alternatiboez hornitu.**
- ♀ **Emakume gazteen laneratzeko erronka nagusiei aurre egin.**
- ♀ **Berdintasun ikuspegikoak diren baina lan-munduan gertatzen diren eskubide urradurengan (jazarpena, trataera sexista...) arreta ezarri.**
- ♀ **Erantzunkidetasun eta kontziliazioan *gazte* ikuspegia indartu.**
- ♀ **LGTBI+ kolektiboaren egoera hobetzeko genero ikuspegitik aztertu eta landu.**
- ♀ **Mota guztietako Indarkeria Matxistei erantzun berdina eman.**
- ♀ **Indarkeria Matxistari dagokionez, azentua jarri prebentzioan (hezkuntza, espazioen diseinua...).**

**PROIEKTUA  
GARATU DU**



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

**LAGUNDU DUTE**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
GIPUZKOA



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala